

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak 0-3 urte arteko Haur Hezkuntzako ikastetxe berria bisitatu du Marcillan

*Nafarroako Gobernuak 600.000 euroko diru-laguntza eman du milioi bat baino gehiagoko aurrekontua duen eraikinerako*

Viernes, 03 de febrero de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulo Marcillara joan da gaur "Bilindanga" 0-3 urte arteko Haur Hezkuntzako ikastetxe berriko instalazioak bisitatzeko. Ikastetxeak urtarrilaren 9an zabaldu zituen atea. Nafarroako Gobernuak 600.000 euroko diru-laguntza eman du milioi bat baino gehiagoko kostua duen eraikinerako.



Barcina Lehendakaria haurrekin solasean ikasgeletako batean.

Ekitaldian izan dira, baita ere, Hezkuntzako kontseilari José Iribas Sánchez de Boado; Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán; Marcillako alkate Jose M<sup>a</sup> Abárzuza; ikastetxeko zuzendari Silvia Goñi; eta Marcillako Udalaren Hezkuntza eta Kultura zinegotzi Vicente Navarro.

Bere agerraldian, Lehendakariak nabarmendu du "instalazio berri hau Marcillak Hezkuntza eta Kulturaren alde egindako beste apustu bat gehiago dela". Barcinak "Bilindanga"-ren esanahiaz aritu da "leku garaietan egiten ziren zabuak-, azpimarratzeko "leku garaietan egon behar dela, helburuak jarritz. Baita Hezkuntzan ere".

Bestalde, ikastetxean lan egiten duten pertsonen zorian eman dizkie (zuzendaria eta hezitzaileak) eta animatu egin ditu, bai eta tokiko arduradunak ere, "bide horretatik jarrai dezaten" ikastetxeko 71 plazak osatzera iritsi arte.

Ekitaldiaren ondoren, Lehendakaria eta Marcillako alkateak opariak eman dizkiote elkarri: Nafarroako ezkutua eta Marcillaren historiari buruzko liburu bat komikien bitartez.

## 72 haur hartzeko lekua

Ikastetxe berria hezkuntza-barrutian dago, San Bartolomé ikastetxe publikoaren eta Marqués de Villena institutuaren alboan, eta ikasturte honetan udalerriko 40 haur daude bertan: Haiei Audry, Margari, Inés eta Carmen hezitzaileek ematen diete arreta; haietako bik lanaldi erdiz eta beste bik lanaldi osoz.



Haurrak agintariak agurtzen.

Ikastetxean 0-3 urte arteko 72 haur sartzen dira (16 plaza 0-1 urte arteko haurrentzat, 24 plaza 1-2 urte arteko haurrentzat; eta 32 2-3 urte artekoentzat).

808 metro koadroko azalera erabilgarria duen eraikina 1.275 metro koadroko udalaren lursail baten eraiki da, eta solairu bakarra du ondorengo espazioetan banatuta: haurrak adinaren arabera bereizita dauden hiru ikasgela bikoitz, komunekin; jangela bat, sukalde bat, garbitegi bat, bilkura-gela bat, tailer-ikasgela bat, siestarako gune bat, bulegoentzako eta biltegirako gela batzuk, bai eta aulkitxoaren gune bat ere. Ikastetxea aisialdi-uneetarako atari zabalean dagoen patio nagusiaren inguruan antolatu da.

Ikastetxean ingeleseko eskolak ematen dira entzumenean, abestietan, oinarrizko direnak, batez ere. Gainera, IKTen txoko bat du, eta bertan haurrak ordenagailuarekin ingelesez jolasten dute; "txoko herrikoi" bat ere bada, eta bertan Marcillako tradizioak lantzen dira.

Ikastetxearen ordutegiari dagokionez, zenbait aukera eskaintzen da: egun osoa 08:00etatik 16:30era jangela eta siesta barne; egun osoa ondorengo ordutegiarekin: 08:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 16:30 era; eta, azkenik, egun erdiz 08:00etatik 13:00erako goizeko ordutegiarekin.

Eraikinaren proiektua Juan Cruz Lasheras arkitektoaren lana da, eta eraikina Sarriguren Constructora y Promotora, SL enpresak egin du.

## Galería de fotos



Lehendakaria Nafarroako ezkutua ikastetxeko zuzendariari ematen.



Audry, Margari, Inés eta Carmen hezitzaileak, Lehendakaria eta Goñi zuzendariaren alboan.